

Ana Urkiza Ibaibarriaga

VII-1995

Orain Mutrikun (Gipuzkoa) bizi bada ere, Ondarrun (Bizkaia) jaio zen 1969an.

Lizentziaduna da Informazio Zientzietan eta Diplomaduna Hizkuntzalaritzan.

Enpresa-Komunikazio ikasketak Toulousen (Frantzia) burutu zituen eta arlo honetan aritu izan da eta ari da gaur egun ere.

"Aixe-bolari" aldizkariko zuzendaria eta Ondarruko Udalaren Informazio Zerbitzuko Arduraduna izan zen eta egun Danobat Taldeko komunikazio arduraduna da.

Literaturgintzan berriz, zenbait aldizkaritan ihardun du laguntzaile gisa (Karmel, Arranondo, Ondarroa, Algacena...).

1985tik 1996ra bitarte hamaren bat lan argitaratu ditu, hauen artean Santa Teresa Lisieuxkoaren idazlan guztiak euskaratu ditu frantsesetik.

Bestalde, azken hamahiru urteotan 21 literatur sari eskuratu ditu.

TEMO



EGUNERO hartzen nuen Lewisham-etik Charing Cross-erako trena eta lotsa izpirik gabe aitortzen dizut, irrikitan egoten nintzela trenean sartzeko unea noiz iritsiko zai. Eta egunak joan ahala, are eta premiazkoagoa egiten zitzaidan desira hura, ez zen trenean bakarrik joatea maite nuelako baizik hantutzen eta harrotzen, zerurantz aireratzen den globoa bailitzan, beti gorantzaka.

Ezinezkoa egiten zait nere desira zein neurritan hazten zen azaltzea; halere, eta inora joan beharrik izan ez arren, larunbatigandeetan ere trena hartu behar izate itsu batek gidatzen ninduela dakit bakarrik.

Baina nere globoari airea kendu ezkero lurraren kontra nola istripatuko zitekeen begira gelditzea, patua gehiegi tentatzea zela iruditu eta oinak Lewisham-erantz bideratuz, trena hartzea zela onena deliberatzen nuen EGUNERO.

GAUR EGUN ezin da ahots gorean horrelako aitorpenik egin, kaleko kritiko zorrotzenek berehala erotzat hartzen bait zaituzte eta mundu honetan ezer gorde behar baldin bada, hori maitea, norbere osotasuna bait da.

Tankera honetako burutazioek lanera deitzen nindutunean, ia egunero, nere bihotzeko ama kuttunaz gomutatzen nintzen, eta ni Inglaterra-ra bidaltzeko josi behar izan zituen ehundaka gona, praka, blusa eta gainerantzekoek... nere ama jostuna da eta.

Zera esaten dizut ba da, kontzientziak apur bat bederen horzka egiten zidala, ama gaixoak ez bait zuen aisa imajinatzerik, berak Londresera inglesa ikastera bidalitako alaba trenean sartzeko desiratzen egoten zela, bidaia hura bederen bakartadean egiteko irrikiz. Beretzat, nere amarentzat esan nahi dut, kontu guzti honetan kontraesan izugarri bat legoke, ez bait luke ulertuko Londresko puntara joan eta nola desira daitekeen bakartadea, herrian kiloka, nonnahi eta noiznahi izanik.

Zuk ordea erraz ulertuko duzu, neretzat trena lasaitasun sehaska zela esaten badizut. Han ez nuen Au Pair zerbitzua prestatzen nuen etxeko arropa garbitu beharrik, ezta familia inglesaren semealabak esnatu eta semearen ohe bustia aldatzerik. Plantxa potolo pisutsu horietako bat zuten, inglesek ez bait dute menajean sosik gastatzen, eta eskubarruetan maskurrak ateratzen hasiak zitzaizkidan umeen eskolako trajeak plantxatzen.

Trenean ordea, ez nuen etxeko jaunaren kati zikinari jaten ematerik, eta adibide guzti hauen gainetik zegoena zera zen: ez nuela nerea ez zen ingles trauskil hartan pentsatu beharrik, hizkuntza sinplifikatu hura distantzia areagotze lanean baizik ez zela trebatzen iruditzen zitzaidalarik.

Eta nere buruari zera galdetzera heldu nintzen, bakartadea zer ote zen, distantzia ezik.

HAMAIKAK bost gutxiagotako trena hartzen nuen egunero, erosketa poltsa, eskolarako karpeta edo lanerako maletinarekin sartzen ziren beste hainbat bidaiarirekin batera. Ez noizean behin bakarrik, eskolara piper egindako gazte andanaren bat, amarekin medikuarengana zihoazen ume koitaduak edo eta laztan bero artean treneko lehiatilak gurmatzen zituen bikote lotsagaberen bat ere sartzen zen. Lotsagabea badiot, inbiria nielako eta inbiria horrek izkutuko desio ahulak pizten zizkidalako da, ez beste ezergatik. Eta bikote lotsagabea diot, berriro, amodioaren egoera arruntenean zihoazelarik gura eta inbiriaren arteko distantzia eza konprenitu gabe, nere globo harroari iseka egiten ausartzen zirelako.

Bestela, gainontzeko bidaiari guztiak zihoazen *«bakarrik eta libre bidean»* nik diodan bezala, bakoitzak bere buruaz pentsatzeko duen egunaren unerik gozoenean. Halaxe arnasten nuen nik bederen bagoi zaharreko egun eta tabako hats nahastua, edozein lasaigarrri baino botika liluragarriagoa bailitzan.

Eguna, trenean sartzen nintzeneko minutu haietantxe hasten zelako irudimenak kilikatzen ninduen eta behin baino sarriago sentitu izan nuen delako eguna bukatzen, hamaikak eta hogeian trena geltokian geratzen zenean.

Hogeitabost minutu haietan bakarrik sentitzeko gogobizia eta nere denboraren jaun eta jabe izateko nahia sentitzen nuen, egunerokotasunaren joan-etorriari darion lerdean ez erortzeko beharra...

Nik bezainbat dakizu honezkero, funtsgabeko esplikazioetan galtzetik urrun, azaldu nahi dizudan bakartade desiratu honek justifikazio beharra duela. Beste hitz batzutan esateko, trenean sartzen naizen aldioro, geltokian norbaitekin biduko naizela edo eta lanera noalako sentsazio nagi baten aztarna utzi behar dudala, nahiz eta zuk ondo dakizun, geltokian ez zaituela inortxok ere espero.

Orduan, bakartade hori justifikatzeko liburu bat hartzen duzu, hala edo hola zure bizitzan gizon bat (emakumeon kasuan) sartzen uzten duzularik, eta tuspustean, egunak dituen ordu libre guztietan orri zurietan deskribaturiko gizon horren beharra sortzen zaizu, maitalea izaki. Autorea ere bere bakartadeaz mintzo zaizu sarri, eta orduan, ulartzen zaituen jendez inguratua sentitzen zara, liburuko orriez gaindiko mundua ere ez dela hain bakartia sinestera makurtzen zarelarik.

Eta unetxo irkin batez, treneko lehiatilaz bestaldera garraiatzen dituzu begiak eta zure harridurarako, hasperen lasai batek harrapatzen zaitu.

Zuk badakizu guzti hau holaxe dela. Eta noizbait, sekretupean, postalen bat ere idatzi izan diozula bakartadeaz ahanzten lagundu dizun «maitale» horri. Hala ere, beti liburu erdian gelditzen zaiz-

kizu postalak, orri artean iltzatuta, postala bera ere liburuari bailegokio.

Luze ez dela, eguna bakartadetik ihes egiten laguntzen dizun autorearekin bakarrik egoteko momentu gozoetan planteiatzen duzu, gurpil ero baten muturrean, isolamendutik ihes egin nahairen menpe erortzen zarelarik.

Nere ama kuttunak, aurki atera zaizkidan hitz hauetan ere kontrsaesan franko dagoela esango lidake, baina zuri ez daukat esplikazio gehiago eman beharrik.

Behin, artean nere baitan bizi zelako ezagutzarik ez nuen izkutuko sentimendu bat harrapatu nuen nire belarrira salatari, askotan gura izan edo amesturiko (ez bait zekien hark ere zer zegoen nik maiz behar nuenarengandik hurbilago) bakartade gutiziatu hartatik aterako ninduena, tren hartantxe ezagutuko nuela.

Irriki horretatik ordea, tunelek bereizten ninduten bakarrik, haietxek bait ziren autorea eta nere arteko lotura ilunpean apurtzera ausartzen ziren bakarrak. Eta orduantxe hasi nintzen gutiziak tunelak bailitzan ulertzen, desioa ez bait da espero duzun zerbait heltzen ez den bitarteko denbora baizik. Behin espero duzuna heltzean desagertzen dena, eta bere hortan indargabetzen.

Eta hortik diotsut, desira edo guraria dela indarrik ahulena, umeak gozokia erosi artean duen gogobizi hori behin erosi ondoren desagertzen den bezala, gero gozokia mahai gainean ahaztuta uzteko. Desioa ere, punturik gorenera iritsi aitzin desagertzen bait da, edonola ere engainuaren zapore mikatsa utziz.

Zera esan nahi dizut honekin, izkutuko sentimendu arrotz hark honako hau argitu zidala, trenean bakartadean igarotzen nituen minutu haietan norbaitek molesta nitzan besterik ez nuela espero, eta are gehiago, nahi hura orokorra zela trenean eta bestela, ez zegoela aurpegietan fijatzea besterik. Eta mintzoak esan bezala, bidaiari guztiak beren bizitzetan norbaiten hitzak sartzeko prest zeundekeela begitandu zitzaidan; tamalez, inor hitzegitera ausartzen ez zen arren!

Eta artean zera pentsatu nuen: ez zegoela bakarrik bidaiatzea bezalakorik!

EGUERDIKO ordu bi t'erdiak arte akademian egon ondoren mutikoaren bila joan behar izaten nuen, hiru t'erdietan eskolatik irtetzen zuenerako. Eta horretarako, hirurak hamar gutxiagotako trena hartzen nuen Charing-Cross-en, Catford Bridge-rako.

Egunero-egunero gauza bera Londresen neramazkien bost hilabeteetan.

Etxera bueltatzeko aste bi baizik falta ez zitzaizkidanean halere, zerbait estrainu agitu zen nere baitan.

Trenak zituen zortzi edo hamar bagoietatik, ni ohizkoa zen bezala erdi inguruko batetan sartu nintzen, Catford-erako norantzari begira.

Bagoiko pasiluaz bestaldean bidaiari bat zegoen ilunpean jarrita baina Londresen lagun kuttun-kuttunak baizik agurtzen ez direnez eta nik han inortxo ere ezagutzen ez nuelako, ez nintzen gizonezkoa zelakoaz ere geroxeagorarte baizik konturatu.

Poltsatik liburua atera eta *«ondoko berrogei minutuen jabe bakarra naiz, ez nazazue molestatu!»*»dioen kartela jarri bainuen, irakurtzen hasi nintzen.

Orrialdearen erdi ingurua heldu nintzenean ordea, bagoiko atea ireki zen. Begiak liburutik segundu erdiz deskuidatu zitzaizkidan eta gizon beltz bat zela ikusi.

Juxtu aldamenean jarri zitzaidan bagoi guztia erdi hutsik egon arren eta alderatu egin nintzen imini bat, bion arteko distantziaren mugak lerro imajinario batez marraztuz, batak bestearen belauna edo mokorra ikutzea hain ezerosoa gerta ez zedin.

Aulkian berregokitze ahalegin alferrikoak egin ondoren, orrialdea hasieratik hartu nuen berriro, ordurako haria hiru aldiz galdua nuen eta. Baina gizon beltzak ez zirudien lerro imajinarioarena ulertu zuenik, eta zuri-zuriak imajinatzen nizkion begi han-

diak nere liburuaren lerroartean itsatsi zituen. Bere arnasak aldizka eta leunkiro nola eskugainea laztan-berotzen zidan sentitzen hasi nintzen eta urduri plantatu berehala, ezezagun batek zaintzen ninduelako sentimendu arrotzak erasotua.

Begiak nere liburuaren gainean zituela zegien, handik edo hemendik hitzen bat ulertu bai bailuen; eta irakurtzen nengoena inglesa zela egiaztatu zuenean, nere aldamenean jarri zenetik buruan zerabilkion galdera egitera ausartu zitzaidan, atzerritarrak inglesei zuzentzen zaizkienean egiten duten modu tipikoan:

–Excuse me, barkatu molestatzearren baina, esango al zenidake mesedez, Waterloo geltokia zenbatgarrena den?

–Lehenengoa! –ihardetsi nion zorrotz asko aurpegira ere begiratu gabe, hortan bizia bera tantaka balihoakidan iheska.

Hirugarrenez hartu nuen orrialdea hasieratik, haserre xamar egia esan, trenean badirela pentzatzeko aukerarik izaten ere uzten ez dizuten egunak oldoztuz. Eta argumentuaren hariaz gogoratuxe nintzen, berriro moztu nindуenean:

–Barkatu berriro molestatzearren baina, ziur al zaude tren hau dela Waterloo geltokian geratzen dena?

Bai! –osteratu nion zitalki, nere erantzuna zalantzan jartzearren baino areago, halako aide txatxua hartu niolako.

«Egunero hartzen dut tren hau» hasi nintzaion azaltzen ezezagunari erreflexu inkonsziente batez, *«eta ez dakit gaur zergaitik egin behar duen beste bide bat»*. Gizon beltza begira-begira gelditu zitzaidan, esaten nionak lasaigo utziko balu bezala. *«Beti gelditzen da Waterloon!»* esanez amaitu nuen nik.

Egun hartan argi nekusan, liburuaren autorea eta nire arteko harreman intimoan mutursartzen ausartu zen gizon hura aldamenean jarri zitzaidanetik, ez nuela egileak zioena bakartadean gozatzerik izango eta badakizu, nere intimatea astindua sentitzean, liburua poltsan sartu nuen.

Trena martxan hasi zenean, aldamenekoak begirik ez zidala kentzen ohart eman nuen eta ni, lehiatilaz bestalde mugitzen ziren

kolore eta marra ezerberdinetan entretenitzen hasi nintzen, zerbait jostagarri egiteko banuela azaldu nahian edo... ez dakit nori! Baina beno, badakizu joku hori zer izaten den... itxura hutsa! Momentu inozoenean ere mundu guztia begira daukazulako sentsazioa duzu, eta zu aitzik, zutaz espero dutena agertzen saiatzen zara: jostatzen ari zarelakoa, pentsatzen zaudenekoa, arduratua dirudizunekoa, etab... Horrelaxe funtzionatzen dugu, beti besteek behar duten hori gu garela pentsatuz, egitan, begiratu ere egiten ez digutenean.

–Inglesa al zara? –xuxurlatzen entzun nion aldamenetik, aurpegiera onbera bezain xamurra erakutziz.

Eta orduan, aurreko haserraldi guztia desagertu egin zitzaidan instant batetik bestera eta inongo arrazoi begibistakorik gabe, usoak eskutik ihes egiten dizunean bezala, esplikaziorik gabe eta baielako, eta sentibera sentitu nintzelako oso, inoiz ez bezala, zera, amarekin adiskidetu aurretik eztarrian korapilatzen zaidan zirrara sentitu nuen. Ondo azaltzen ez banaiz barkatuko didazu.

–Ez! –erantzun nion pena eta lotsa batera uztartzen direneko gozogaitza erdituz–. Espainola naiz!

Eta «kaka» esan nion nere buruari. Londresen espainola nintzela aitortzearen arrazoiak zenbaitzuren aurrean justifikagarriak izan bazitezkeen ere, azal beltzaren kolorea izkutatzerik ez zuen mutil haren aurrean miserablea izatea baizik ez zela ondorioztatu nuen; eta beltzak nere egonezinaren berri jaso zuelakoan, zeharo zapuztuta, begietara so egin nion, lehenengoz.

–Zer ba? –galdetu nion.

–Ez, azentua dela eta! –erantzun zuen berak nagiki, nik esandakoari aparteko garrantziarik eman gabe–. Inglesa ikasten?

–Bai! Eta zu?

–Ni... ni ez naiz Londresera inglesa ikastera etorri! Ni saltzailea naiz! –bere soinekoa ukituz azaltzen ahalegindu zitzaidan– Horrelako mila txaketa eta bi mila praka ditut eta merkantzia guzti hori saltzen dudanean joango naiz etxera!

Ez zen guk ezagutzen ditugun paisa horietakoa, ez pentsa, baina bihozmin ikaragarri batek asaldatu ninduen, txaketak eta prakak saltzetik urrun, osta-ostan jakin behar zuela irakurtzen hantzeman nionean bere begi lausoen sakonean.

–Gaur gauean kalera irtetzerik nahi? –galdetu zidan ixilune labur baten ondoren.

Ustekabez jaso nuen itauna. Bakarrik zegoela eta Londres gauez ez zuela ezagutzen azaldu nahian hasi zitzaidan, berehala baietza eman nionean. Irriño herabe eta jostagarri bat askatu zitzaion ezpainetatik, ostendu ezin dugun ilusioak salatzen gaituenean bezala. Satisfakzio aratz bat hedatu zen bere aurpegian eta xalotasun hartan gupidagabeki konplize sentituz, nere etxeko telefonoa eman nion iluntzean dei ziezadan.

Trena Waterloo geltokira heldu zenean, andenetik agurtu eta desagertzen ikusi nuen eta ni behingoz bederen, bakartadea abandonatzeko gogobiziz sentitu nintzen.

Nere jokabidearen norantza ulertzekorik ez dagoela esango didazu ordea, baina zer arraio! Lainoek ere halaxe egin ohi dute; haizeak nondik jo edo norantza bultz egin, han ibiltzen dira euri zama non utzi ezin erabakita eta ia gehienetan, deliberoa hartu dutenean, ura okerretako lekuan hustutzea erabaki dutela konturatzen dira. Beranduegi, tamalez.

Nik nere orenean igarri nion asuntoari. Poz konteniezin bat jabetu zen nere suerteaz baina guzti hau ezin izan dut oraintsu arte kontatu ahal izan, zeren eta emakumeak bere barnepakea zein poza aurpegian nabarmenki islada dakion uzten duenean, txoriburu lotsagabetzat baino areago, pekataritzat jotzen da eta.

Kontu hortaz kexaturik, inguruko jarlekuetara begira hasi nintzen, nere lotsagabekeriaz inor jabetu ote zen galdezka. Pasiluaz bestaldeko eser ekuan zegoen gizonezko batengan erreparatu nuen. Niri begira-begira zegokidan, *«auskalo noiztik»* pentsatu nuen nik *«eta zer ikusi ote duen…»*, *«hemen nago, hemen nago»* taigabea errepikatzen zuela zirudien irribarre koipetsua eskainiz.

Gizon likits hura ikusi eta Tartaloren eraztun hiztunaren kondaira erkatzea bat izan zen. Bortxazko irrifarre faltsu batez erantzun nion nik ere, eta hiru nik ere, eta hiru kontatzeko betarik izan aurretik, deseroso sentitu nintzen izuak gainezka, salduta oso.

Malzurkeriaren senaz jabetu zen nere barrunbea eta neskatila babesgabeei zuzentzen zaizkien begirada lizunen kariaz pizten den mesfidantza grina loratu zen nere baitan. Bere gurasoengandik galdu den haurtxoa bezain babesgabe nere burua idoro nuen hartan, eskainitako esku baten alde edozer eman izanen nuke.

Milaka ideia gaiztok gaineraso ninduten eta Waterloon agurtu berri nuen mutil beltzaren izenik ere ez nuela ezagutzen konturatu nintzen. Eta nere etxeko telefonoa eman niola, eta gauez harekin kaleratzera abenturatu nintzela, eta... antzeko burutazioek astintzen ninduten taigabe...

Nora ezean dabiltzan lainoek euria edonon deskargatu zutelako sentsazioak kokildu ninduen eta zaparradak aterkirik gabe harrapatzen zaituen arratsaldean bezala, sentipen hura ere, bustita egotea bezain humela zela erreparatu nuen.

Hotzikara basati batek kolpatu zidan bizkarrezurra, trumoi egun hartako hezetasuna egitan nere barne erropetaraino iritsi izan bailitzan. Waterlooko beltzaren asmoak, pasiluaz bestaldeko gizonaren barre likitsaz konparatzen hasi nintzen eta nere emakumezko bihotz izutian, arriskuaren irudipen ezezkorrak aurrean nuen gizon ezezagunak eragindakoak zirela pentsatuz, lasaitasuna irabazten ahalegindu nintzen.

Ez nuen horretarako betarik izan ordea, segundu erdiaren bueltan, pasiluaz bestaldeko gizonak bere aldamenean jartzeko keinua egin zidala ikusi nuenean.

«Zer demontre pentsatu ote du demoniñu honek?» entzun nuen nere baitan, alaba babesteko beti prest egon ohi den amaren ahotsa, denbora luzez ahantzia nuena.

Gizonaren keinu zatar harek, irudimen probokakor desatseginak zekarkizkidan gogora; pelikuletan ikusi ohi ditugun imajina

gogor askok erasotu zuen nere mintasuna baina nere osinik sakonenean gozamenez murgiltzen zen desio legegabe batek bultzatuta, eta nere gogoaren kontra etzazula bestelakorik pentsa, pasiluaz bestaldeko gizon hari ere Waterlooko mutil beltzari egin nion harrera bera zor niola sentitzen nuen.

Ulertzen nauzu apurtxo bat ez bada ere, ezta?

Begibistakoa zen ez zela inglesa eta azaltzen ez dakizudan arrazoiren batengatik, atzerrian zaudenean bakarrik jaiotzen den elakartasun printzipio estrainu batek sukartua apika, inglesak ez ziren guztiak pareko sentitzera makurtu nintzen.

Atzerritar guztiak anaikidetzat jotzen ditudalako ideia honen zentzua gehiegizkoa dela edo justifikazio gisa azaldu dudala esango didazu agian, eta arrazoirik ez zaizu faltako.

Waterloon agurturiko mutilari malezia gabeko irriño xalo bat eskaintzearekin, nerekin harremanatu nahi zuten guztientzat bideia ireki nuelako sentsazioa nuen.

Bagoi berean zihoan gainontzeko jende multzoari begiratu nion kezkati, nere sentipen lohiak besteenganaino barreiatu ote zirenentz galdetuz edo; baina ez zirudien nere burutik at, nere imajinaziotik harat ezer agitu zenik.

Badakizu, bagoi hartako jendeak egunero biziko zituen tankera hartako lige zantarrak atzerritarren artean eta *«nola engainatzen garen!»* gogait egin nuen: emagaldu gisa sentitzeko ezer gutxi falta zitzaidan arren, ez zitzaidan axola bagoiko jendea hortaz konturatzen ez zen bitartean... *«Arriskua inoren baitan balego lez»* errepikatu nuen gerora, nere buruarekin nindekarren jolas mingarria sinetsi ezinik.

Pasiluaz bestaldeko gizonak ere beltzak galdetutako gauza berberak itaundu zizkidan, erakuslehioan dagoen lanpararen prezioa galdetzen den bezala, nere bizitzaz jakiteko eskubidea bailuen eta mutil beltzarekin tratatu nuena berriro eta edozeinekin mintzazera derrigortua bainengo.

Inongo lotsa eta disimulurik gabe begiratzen zidan eta trenaren mugimendu batetik bestera, izerdi likin epelak erasotzen nin-

duen, blusaren zirrikituetatik sartzen zitzaidan noizbehinkako bero larria bere soera likitsa zela pentsatuta.

–TEMO NIRE IZENA! –indio hizkeran esanez aurkeztu zitzaidan, belarri batetik besterainoko irribarrea izkatu ezinik–. ITALIARRA NAIZ.

Temo italiarra izatetik oso urrun zegoela, sudurrak berehala salatzen dizun kontu horietakoa zen, eta kontu egizu sudurrak ez duela egundo engainatzen! Areago ematen zuen afrikarra, bere barre ozen eta soera hezgabearekin.

–EGUNERO NI TREN HONETAN, ZU IKUSI! –hasi zitzaidan azaltzen ondotik.

Eta egunak aurretik ezagutzen ninduela jakietan lasaitu, eta hortik aurrera esatera zihoakidan ezer ez zitzaidala interesatzen jakin arazi nahi banio bezala, liburua atera nuen poltsarik irakurri plantak egiteko.

–ZURE TELEFONOA NIRI EMAN! –izan zen Temoren hurrengo ateraldia.

Eta aztoratua bezain haserre, egunero tren hartan elkar ikusi behar baldin bagenuen, ez zuela nere telefonorik behar erantzun nion bortziki, ordurarteko errespetoak galduz.

Berehala ohartu zen mutil beltzari haina aurrerapen nahi ez niola eman eta «BIHAR ARTE» hotz bat esanez, Lewisham-en jeitsi zen, erdi minduta.

Hurrengo geldiunea zen nerea, Catford Bridge.

Arratsalde hura, afaldu ezkeroztik, telebista aurrean igaro nuen umeekin telefonoak noiz tirrin egingo zai, alferrik ordea. Waterlooko mutilak ez zuen arratsalde hartan deitu eta emakumeok dugun seigarren zentzu horri esker, etorkizunean ere ez zuela deituko asmatu nuen.

Biharamonean, aldamenean jarri zitzaidan Temo baina mutil beltzaren zai nengoela ulertu izan bailuen, ez zidan ezer esan harik eta trena martxan hasi zen arte.

–EZKONDUTA? –bota zidan trena mugitzen hasi bezain fite, Waterlookoa ez zela agertu baieztean.

–Ez! –erantzun nion nik, oraindik mutil beltza agertuko zelakoaren itxaropenezko asken hatza galtzeke, lehiotik begira.

–SENARGAIRIK? –itaundu zidan ondotik.

Ezezko are tristeagoa eskaini nion erantzuntzat, nere ustezko laguntxoa ez nuela gehiago ikusiko ulertuz eta ezezko erantzun indarge hark ekar ziezazkidakeen ondorioetaz pentsatu gabe, berriro nere bakartade isolatuan murgiltzea besterik ez nuela desio.

Senargairik ez nuela esateak, itxuraz, bere andregaia nintzela sinesteko ausardia eman zion, «OSO POLITA ZARA» esan eta gainerantzean eskainiko zizkidan opariak, ezkonagintza aurretiko erritualez jarraitu eta apainduko zituelarik.

Paperezko poltsatxo batetan bilduta zekarren sandwich-a eta Coca-cola lata parea atera eta jatera gonbidatu ninduen, zenbait animalia harraparik emea erakarri nahi dutenean, honi eskaintzen dioten harrapakinaren bidez euren ehizatzeko ahalmena erakusten duten eta berean. Temok ere, bazkari ustezko harekin nitaz jabetzeko haina ahalmen bazuela eta jadanik, berak bere emea aukeratu zuela adierazi nahi izan zidan.

Niri erritual guzti hura burugabea iruditu zitzaidan, gehiegizkoa, eta lana izan nuen ene harridura gainditzen. Non zegoen nere hitza? Inork entzun al zuen? Inork galdetzekorik egin al zuen? Eta hala izanda ere, aisa erantzunik jasoko ote nuen? Galderoi ixiltasuna jarraiki zitzaien.

Primateren bat gozotasun eta trebezia gehiagoz tratatuko zutela pentsatuz eta bide okerretik gorpuztuz zihoakion ideia ezinezko harekin bukatu beharra nuela erabakiz, etxean bazkaltzekotan nintzelako errefusatzen niola gonbidapena azaldu nion.

–ZU NEREKIN ETXERA! –esanaz gogortu zen, nere nahia huraxe zela eta bestelakorik ez zuela onartzen argi utziaz.

–Ezin dut zurekin etxera joan –azaltzen hasi nintzaion, bitartean aitzakiaren bat burura zekidan erregutuz–, haurrak jaso behar ditut eskolatik ateratzen direnean eta!

–BIHAR ORDUAN!

–Bihar ere bai!

–EGUNERO UMEAK? –esanaz tematu zen gaian.

–Bai, egunero umeak! –erantzun nion nik, hura esateak bera beste penatuko bainindu.

Beldurrak ere kolpatu ninduen egia esan, handik aurrera zer ateraldi izan zezakeen ezin asmatuz, baina bere ideiarekin bat ez nentorrela adieratzen zuen argibide nahikorik eman niola uste izan nuen.

Sandwich-a paper-ontzira bota eta lehiatilaz bestalde begira gelditu zen, labana sartu banio lez zauritua, harrapakinik gabe gelditu den ehiztariaren amor-propioa zintzilik. Eta emea erakartzeko zituen baliapide urriei hutsal eritzirik, ezin izan nuen dezepzioaren haginek ene barrunbea nola horzkatzen zuten sentitzea ekidin.

–ASTEBURUETAN ERE BAI? –galdetzea otu zitzaion hurrengo.

–Ez, asteburuetan ez! –erantzun nion nik, Temorekin sekula ez nintzela kalera aterako pentsatu arren, bere jolasari jarraiki.

–ORDUAN, OSTIRALEAN GUK PLANA EGIN! –ondorioztatu zuen.

Ez zuen etsi, eta badakizu, bere burugogorkeria hura lausengu polita begitantzen bazitzaidan ere, argi nekusan nik gizon harekin ezer gutxi nahi nuela, eta gertakizun asko eta asko eskatu gabe eta beren iturburua edo helburua ulertzeke datorkizkigulako, nola ihes egin niezaiokeen ezin kalkulatuz hasi nintzen, harik eta obsesio bilakatu zitzaidan arte. Une hartantxe bertan harrapatu ninduela uste dut gaixotasunak; horixe da behintzat buruan sartuta daukadana. Ondoko egunetan, nola ihes egin nezakeen makinatzea bila-

katu zen nere kezka bakarra. Erotzekoa ez baldin bada, zuk esango didazu!

Guzti hau astearte batez izan zen, gogoan dut oraindik, eta asteazkenean, trena martxan hasteko minutu bat falta zela sartu nintzen bagoian. Temo ordurako trenean izango zela eta elkar ez genuela ikusiko pentsatuz. Temo beranduago etorri zen ordea, eta ez nuen harengandik ihes egiterik lortu.

Ostegunean, trenaren zai geltokian egon beharrean, geltoki aldameneko dendan luzatzea oldoztu nuen eta minutua eskas falta zenean, trenaren asken bagoian sartu nintzen, Temo aurreko egunean bezala bagoiz-bagoi nere bila hasten bazen ere, azkenengora heltzeko betarik eman zen ez zekion.

Kalapita! Trenak geltokia uzteko eta nik nere garaipena ziurtatzeko segunduak baizik falta ez zirenean, han agertu zitzaidan Temo, betiko bagoian nere zain zegoela eta lehiatilatik azkenengo bagoiraino joaten ikusi ninduela azalduz. Bere begietan, tankera hartako umekeriak zergaitik egiten ote nituen galdetzen zuela irakurri nuen eta irribarre goxo bat eskainiz, aste hartan irakurtzerik izan ez zuen liburua atera nuen. Keinu harekin dena ulertuko zuelakoaren ustez.

Ostirala gainean nuela eta oraindik gizon hark ikusi gabe trenean sartzerik ez nuela lortu banekien ordea. Eta errekurtso berri batekin proba egitera ausartu nintzen ostiralean. Geltokiko komunetan izkutatu nintzen eta trenak geltokia uzteko hamabost segundu falta zirenean, ziztu bizian arineketan hasi eta trenak irteera txistua jotzeaz batera, lehenengoko bagoian sartu nintzen.

«Bagoi hartan ez da egongo Temo horraitio!» zen nere burutapen bakarra, trena galtzeko arriskuan ibiltzeaz gain, Temok erotzen hasia nintzela usteko bait zuen. Nere kontzientzia zen, nolabait, ene portaera kaxkarraren ahulaz salatzen ninduena.

Berandu heldutako jendez gainezka zegoen bagoia eta pasiluan barrena mugitu beharra izan nuen jezarlekurik aurkituko banuen. Zorionez, Temo ez zegoen bagoi hartan, eta azkenik,

«asteburuko planarengandik ihes egitea lortu dut!» garaipena usaitu ahal izan nuen.

Pozarren egin nuen ostiraleko bidaia hura, Temo zoro baten antzera nere bila ibiliko zela imajinatuz, ni lasai-lasai nindoan bitartean.

Eta arraro xamarra irudituko bazaizu ere, Londresen nengoenetik, nere denboraren jabe eta bakarrik sentitzen ez nintzeneko lehenengo aldia izan zen huraxe.

Zer deritzozu? Emakume egina nintzen asteburu hartan, burutik behatzetara, gizonezko bat nerekin amesten zegoela eta astelehenean iguriki izango nuela oldoztuz.

Astelehenean ostera, guda gogor baten zelaia zen nere burua. Batetik, Temoren aurpegi goibela ikusi nahi nuen eta bestetik, engainatzen segitzeko desio itsu batek erretzen ninduen. Askenik, ostiraleko plana jarraitzera makurtu nintzelarik.

Umeek baino gehiago gozatu nuen astelehen, astearte eta asteazkenean, baina gizon harengandik garaipentsu asko libratu izana ospatu beharko nukeela pentsatzeko aukera izan aurretik, hara ostegunean aurrez-aurre non topo egin genuen.

Ustekabez harrapatu ninduenez, lapurretan bezala sentitu nintzen, lotsa masailetan odolgorritzen eta pentsamenduak garden-garden ageri zitzaizkiola.

Ilunetan zegoen bagoia oraindik. Temok ez zidan hitzik zuzendu eta ni neu ere ez nintzen ezpainik mugitzera animatu. Argiak piztu zirenean, nere aurreko jezarlekura egin zuen mugi eta herrenka zebilela konturatu nintzen.

–OSTEGUNEAN ISTRIPUA! –argitu zidan ooinean zeraman bendaiaz kontu hartu nuela ikustean.

Istripuaz, hospitalean igarotako egunetaz eta lanerako hanka bendatuak zekarkizkion arazoez mintzatu zitzaidan luze. Hitz bat ere ez gure astebururako zuen planaz.

Trena martxan hasi zenean, zeharo akitua sentitu nintzen, putzu zahar batetako ur geldo berdea baino lohiago, aurreko egu-

netako arineketak, ihes egiten niola uste nueneko gozamena eta erotasun guztiak nere irudimen txoroa baizik ez zela eta asmatzen nuen bakartade desiratu hartatik aterako ninduena, ez zela urrunetik baino existitzen konprenituz.

Sandwich-a jan eta gero, burua lehiatilan apoiatuz loak hartu zuen. Egun hartan ez ninduen jatera gonbidatu, ez zidan polita nintzenik esan eta esker gaiztorako, nik irakurtzeari uzteko delibero sendoa haru nuenean, nere muturren aurrean loak hartu zuen.

Hurrengo astean ere Charing Cross-etik Lewisham-erakoa ellkarrekin egin genuen, ia-ia hitzik gurutzatu gabe, eta trena martxan hasi berehalaxe, burua sorbalda edo papar gainean nola kulunkatzen zitzaion nekusala... badakizu nola sentiarazi ninduen?

Bakar-bakarrik berriro eta libururik irakurtzeko gogorik gabe. Nere oroitzapenen zaborrak sailkatzen hasteko premia biziz.

EZ NUEN gehiago ikusi.

Eta orduan negar egin nuen, nitaz agurtu gabe joana bait zen, sekula ezagutu ez banindu bezala, kaleko edozein arrotz bainintzan... ni beretzat zerbait berezi izan nintzelako ustea nuenean...

Orain, Londresetik urrun eta bakarrik nagoenean, bere irribarrea ez zela bat ere itsusia iruditzen zait eta bere iharduerak ere ez hain basatiak. Ez zela italiarra uste izaten segitzen dudan arren, zer egiten ariko ote den imajinatzen galtzen dut eguna, eta oraintxe inoiz baino areago, nere denbora librea neurea denean.

Noizbehinka geltokira joaten naiz libururen bat irakurtzen ez nagoenean, geldirik dagoen trenean sartu eta bagoi zaharrek duten egur eta zigarro usai nahastua hasperentzera, trenak geltokia utzi aurreko azken segunduak ahitzera, Charing-Cross-eko komunetan egiten nuen bezala, noizbait norbait agertu daitekeenaren ilusio faltsua asetzera.

Denborak aurrera egin ahala gauzak aldatuz doazela ikasi dut, eta nere intimitatea autoreekin konpartitu asmoz berriro liburuak irakurtzera bueltatu naizen arrren, trenaren txistua dantzudanean, arrapalada baten egiten dut trenetik andenerako jauzia, trenaren partitzea ikusi eta Temo ere nitaz gogoratuko ote den galdetuaz.